

IV. IGANDEA URTEAN ZEHAR (A)

Otoitza

Egizu, Jainko gure Jauna,
Zu bihotz-bihotzez maite zaitzagula,
eta gizon-emakume guztiak geure burua bezela maita ditzagula.
Zure Seme Jesu Kristo.

I. IRAKURGAIA: So 2, 3; 3, 12-13

*Herri apal eta behartsu bat utziko dut Nik,
zure erdian.*

Sofonias Profetaren liburutik

Bila ezazue Jauna, zuek, apalok,
Haren aginduak betetzen dituzuenok;
bila ezazue zuzentasuna, bila apaltasuna;
behar bada aurkituko duzue babes
Jaunaren haserre egunean.
Herri apal eta behartsu bat utziko dut Nik, zure erdian;
Jaunaren izena izango du bere babes.
Israelgo hondarrek ez dute txarkeriarik egingo,
ez gezurrik esango;
haien ahotan ez da mihi maltzurrik aurkituko;
inork izutu gabe larratuko dira eta etzango.

ERANTZUN SALMOA: Sal 145, 6c-7ab. 7c-8. 9-10

**R/. Zorionekoak, gogoz behartsu direnak,
berena dute eta zeruetako erreinua.**

Edota: **Aleluia.**

Leiala da betiren beti,
ematen die eskubidea zapalduen,
ogia gose direnei. R/.

Atxilotuak Jaunak askatzen ditu,

itsuen begiak Jaunak argitzen ditu.
Konkor daudenak Jaunak ditu zutiarazten,
zintzoak Jaunak ditu maitatzen. R/.

Arrotzak Jaunak ditu zaintzen,
umezurtz eta alargunak laguntzen,
eta gaiztoen asmoak eragozten.
Errege izango da Jauna sekuletan,
zure Jainkoa, Sion, menderen mendetan. R/.

II. IRAKURGAIA: 1 Ko 1, 26-31

Munduko argalak aukeratu ditu Jaungoikoak.

San Paulo Apostoluak Korintotarrei

Senideok: Begira zuen kristau batzarrari. Gutxi dira zuen artean jakintsuak; gutxi, ahaltuak; gutxi, haundikiak.

Jaungoikoak munduko zoroak aukeratu ditu, jakintsuak lotsarazteko; eta munduko argalak aukeratu ditu Jaungoikoak, indardunak lotsarazteko; eta munduko arrote eta baztertuak aukeratu ditu Jaungoikoak, eta ezerezak, zerbaitirenak ezerezteko, inor harro ez dadin Jaungoikoaren aurrean.

Hari esker zaudete zuek Kristo Jesusengan. Jaungoikoak Kristo hau guretzat jakinduria egin baitu eta zuzenbidea, eta gainera santutze eta erospen. Horrela, Liburu Santuak dioen bezala: «Inor harrotzekotan, Jaunarengan harro bedi».

EBANJELIOA: Mt 5, 1-12a

Aleluia: Mt 5, 12a

R/. Aleluia.

V/. Poztu zaitzete eta alaitu,
haundia izango da eta zuen saria zeruetan. R/.

Zorionekoak, gogoz behartsu direnak.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik

Aldi hartan, jende taldea ikusirik, mendira igo zen Jesus, eta eseri zenean, bere ikasleak inguratu zitzaizkion, eta Berak honela erakusten zien:

«Zorionekoak, gogoz behartsu direnak;
berena dute eta zeruetako erreinua.

Zorionekoak otzanak;
 berak izango dira eta lurraren jabe.
 Zorionekoak, negar egiten dutenak;
 poztuak izango baitira.
 Zorionekoak, zuzentasunaren gose eta egarri direnak;
 aseak izango baitira.
 Zorionekoak errukitsuak;
 hauek iritsiko dute eta errukia.
 Zorionekoak, bihotzez garbi direnak;
 hauek ikusiko dute eta Jaungoikoa.
 Zorionekoak bakegileak;
 Jaungoikoaren seme eta alaba esango bainzaie.
 Zorionekoak, zuzenagatik erasotuak;
 hauena da eta zeruetako erreinua.
 Zorionekoak zuek, Niregatik biraoka eta erasoka erabiltzen zaituztenean, eta gezurretan asma ahalak zuentzat esaten dituztenean; poztu zaitezte eta alaitu, haundia izango da eta zuen saria zeruetan».

Oparigaien gainekoa

Hona hemen, Jauna, aldare gainean,
 zure zerbitzarion eskaintza;
 hartzazu bihotz onez
 eta egizu guretzat sakramentu salbagarri.
 Jesu Kristo.

Jaunartze ondorengoa

Indarberritu egin gaituzu, Jauna,
 gure erospeneko sakramentuaren bidez;
 iguzu, egiazko fedean beti aurrera egin dezagula,
 betiereko salbamenaren janari honi esker.
 Jesu Kristo.